



OSOKO BILKURA BEREZIAREN SAIOARI DAGOKION AKTA,
2018KO MARTXOAREN 16AN EGINA

ALKATEA

Juan Felix Naberan Ozamiz jauna (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK

Julián Maria Uriarte Lamikiz jauna (EAJ-PNV)

Edorta Ibarra Basabe jauna (EAJ-PNV)

Edurne Murga Santisteban andrea (EAJ-PNV)

Carlos Mendiola Ugalde jauna (EAJ-PNV)

Aitziber Ribas Bilbao andrea (EH BILDU)

Jasone Basterretxea Oyarzabal andrea (EH BILDU)

IDAZKARIA:

Amaia Abanzabalegui Aranguren andrea

Bi mila eta hamazortziko martxoaren hamaseian, ostirala, Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, arratsaldeko bostak eta hogeita hamar minutu izanik, Gautegiz Arteagako Udaletxeko Bilkura bildu da saio berezian eta lehen deialdian, aurretik horretarako deialdiari jarraiki.

Osoko Bilkurako zinegotzi guztiak saioan parte hartu zuten. Saio hau Alkate jaunaren aurrean egiten da, akta hau sinatzen duen idazkari-kontu-hartzailearen laguntzarekin.

Presidentziak Saioa ireki ondoren, **GAI-ZERRENDAN** dauden gai ei buruz berba egin da:

Lehenengo.- 2018ko urtarrilaren 25eko data duen saioko aktaren zirriborroa onartzea, egokia bada.

Idazkariak 2018ko urtarrilaren 25eko saioko akta aditzera ematen du, eta hura aho batez onartzen da.

Jasone Barrenetxea andreak eta Aitziber Ribas andreak adierazi dute aktan ez



dela ageri gobernu taldeak Hitzaren zerbitzuak kontratatzeko konpromisoa hartu zuela.

Hori dela eta, osoko bilkurako kide guztiek aho batez adosten dute 2018ko urtarrilaren 25eko akta, honako aldaketa honekin: hamaikagarren puntuari (Galderak eta eskaerak) paragrafo hau txertatzea :

“- Jasone Basterretxea andreak eta Aitziber Ribas andreak eskatzen dute Hitzaren zerbitzuak kontratatzeko konpromisoa har dadila. Alkateak eta gainerako zinegotziek Hitzaren zerbitzuak kontratatzeko konpromisoa hartzen dute, haien publizitateko zerbitzuak kontratatuta edo zuzeneko diru-laguntza emanda.”

Bigarren.- 2018ko ekitaldiko Aurrekontuetan egindako aldaketak onartzea, egokia bada.

Ikusita Kreditu Aldaketen Espedientea, Gauegiz Arteagako Udalaren Aurrekontuari eragiten dioten 2/2018 Kreditu Osagarriekin

Ikusita idazkari-esku-hartzaileak igorritako txostena, eta idazkari-esku-hartzaileak diola espediente hori araudi aplikagarriarekin bat datorrela, zehazki, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren (Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa) 34. artikuluan ezartzen diren baldintza eta izapideekin.

Kontuan hartuta Informazio Batzordearen aldeko irizpena, 2018ko martxoaren 2koa.

Ikusita azken informazio batzordea egin zenetik 2.270 euro gehitu behar direla aplikazio berri batean, “241.42200. Behargintza”.

Udalbatza honek, ekitaldira joan diren kideek aho batez hala erabaki ondoren,
HITZARTZEN DU:

Lehen.- 2/2018 Kreditu Osagarriekin Aurrekontuko Kredituak aldatzeko espedientea onartzea, Gauegiz Arteagako Udalaren ekitaldi honetako Aurrekontuari eragiten diona, egindako proposamenarekin eta jarraian ageri diren Kapituluarekin bat:



KREDITU-GEHIKUNTZAK

Aplikazioa	Izena	Gehikuntza
920.22715	Laneko arriskuen prebentzioa	5.100 €
414.22717	Bideak sasiz garbitzea	4.000 €
334.22606	Sustapen kulturala	11.100 €
341.22606	Kirol-ekintzak	9.900 €
453.600	Orubea erostea	45.000 €
342.62201	Gauegiz Arteagako pilotalekua	45.130 €
1532.60104	Lanak Zelaieta kalerako sarbidean	143.709,33 €
335.643	Toponimia ikerketa	12.087,90 €
323.623.01	Eskolako berokuntza	18.000 €
431.471	Enpresa txikientzako diru-laguntza	4.000 €
323.623.02	Eskolako leihoak	8.035,58 €
1532.60102	Bide publikoen zoladura	6.000 €
342.62202	Skate pista	14.000 €
241.42200	Behargintza	2.270 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA...		328.332,81 €

FINANTZATZEKO ERABILITAKO BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
87000	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako	328.332,81 €
GUZTIRA		328.332,81 €



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

Bigarren.- Hamabost eguneko epean jendaurrean jartzea, nahi duenak erreklamazioa aurkez dezan. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, hitzarmen hau behin betikoa izango da, eta Aurrekontu Orokorrak onartzeko egin behar diren izapide berdinak egin beharko dira espediente honekin.

Hirugarren.- Busturialdeko Ur Partzuergoaren Estatutuetan egindako aldaketak onartzea, egokoa bada.

Ikusita Busturialdeko Ur Partzuergoko presidentetzaren Ebazpena, Busturialdeko Ur Partzuergoaren Estatutuetan egindako aldaketei lotuta, egun bideratzen ari dena.

Kontuan hartuta Informazio Batzordearen aldeko irizpena, 2018ko martxoaren 2koa.

Udalbatza honek, ekitaldira joan diren kideek aho batez hala erabaki ondoren,
HITZARTZEN DU:

LEHENA- Busturialdeko Ur Partzuergoaren Estatutuetan egindako aldaketak onartzea, Udal honetan 2018ko otsailaren 15ean aurkeztutako proposamenaren arabera (sarrera-erregistroa: 355). Proposatutako aldaketak gorriz txertatu dira:

“1. Artikulua.- Eraketa

1. **Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Gernika-Lumo, Forua, Gautegiz Arteaga, Ibarrangelua, Kortezubi, Mendata, Mundaka, Murueta, Muxika eta Sukarrieta** udalerriek guztiak Bizkaiko Lurralde Historikokoak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzarekin batera, bere borondatez Partzuergoa eratzen dute, Bizkaiko Udalez gaindiko Eremuko Erakundeak araupetzeko martxoaren 30eko 95/3 .Foru-Arauk jarritakoa eta Toki-Jaurbidearen araubidearekin bat etorriz, biztanleriaren ur-hornikuntza eta saneamendua zerbitzuaren kudeaketa osoa edo eskatzen dizkieten beste batzuk egiteratzeko, Estatutu hauetan ezargarri izango zaizkien izaera orokorreko eta betearazteko xedapenei zuzen loturik.

3. Artikulua.- **Lege Nortasuna eta atxikipena**

1. Partzuergoak Bizkaiko udalez gaindiko eremuko erakundeak araupetzeari buruzko martxoaren 30eko 95/3 Foru-Araua, **Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen** apirilaren 2ko 85/7 Legea, **apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Arlo Publikoaren Lege Araubidea arautzen duen, urriaren**



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

1eko, 40/2015 Legea, edo araudia honen ordezkari edo osagarri legez egiten den legeriarekin bat etorriz, dituen helburu bereziak betetzeko nortasun eta gaitasun juridikoa eta baita egitekoa ere izango du.

2. Legeak aurreikusten dituen eragin orotarako, Busturialdeko Ur Partzuergoa Gernika-Lumoko Udalarari atxikitzen zaio.

Atxikipen hau aldatu beharko, estatutu honetan jasotzen den prozeduraren bitartez, Legez dagozkion zentzuan, epeetan eta eratan, atxikipen-udalerrria aldatu behar denean.

12. Artikulua.- Kontseeilu Nagusia

1.- Kontseilu Nagusia Partzuergoaren organu gorena da, berau ordezkatzeko duena eta Tokiko Herri-Erakunde izaera hartzen duena.

2.-Kontseilu Nagusia, Partzuergoa osatzen duten Udalerriak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren egongo dira ordezkaturik.

3.-Kontseilu Nagusia ondoko kontseilari hauek osatuta dago:

- Eusko Jaurlaritzaren Ordezkari bat.
- Foru Aldundiko Ordezkari bat.
- 5.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanlegoko partzuerturiko udalerririk bakoitzeko ordezkari bat
- 5.000 eta 12.000 zuzenbidezko biztanlegoko biztanle bitarteko partzuerturiko udalerririk 12.000 biztanletik gorako zuzenbidezko biztanlegoko partzuerturiko udalerririk bakoitzeko, hiru ordezkari.

4.-Baita ere, Kontseilu Nagusiko kidea izango da Kudeatzaile-Zuzendaria, hitz egiteko eskubideaz baina ez boturik ematekoaz.

5.- Halaber, Idazkari funtzioak beteko ditu Lehendakariak kargua daukanak izendatzen duenak. Kargua Partzuergoaren kidea den edozein udalerririk Idazkaria denak edo behar besteko gaitasuna duen Partzuergoko langile batek bete ahal izango du, kasu bietan boto eskubiderik gabe.

6.- Kontseilura, Lehendakariak egokietsitzen dituen aholkulariak joan ahal izango dira.

7.-Paratzuerturiko udalek euren ordezkariak udalkideen artean izendatuko dituzte.Partzuergoan ordezkari izango direnak Udalbatzetan beteko duten agintaldi bera izango dute.

8.- Ordezkaturik dauden erakundeak, aurreko idazketan jarritakoa kontutan harturik bere ordezkarien izendapenei uko eman eta hauek ordeztuko dituztenak aukeratu eta, baita ordezkariak edozein arrazoigatik hutsik dagoenean ere izendatu ahal izango dute. Kasu hauek ordezkariaren agintaldia lehen-hautatu izan denari geratuko zaion epealdirako izango da.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

9.-Zinegotzi-kargua galduz gero, ordezkariak utzi beharra ekarriko du, Udaltzat berriztatzen diren kasuetan izan ezik. Honelakoetan Partzuergoan bere jardunean jarraituko dute, agizko administrazio gaietarako bakarrik, ondorengoek karguaz jabetu arte. Gehiengo kualifikatua legez eskatzen diren kasuetan ezin izango dute erabakirik hartu.

10.- Partzuergo udalerriak sartuz gero, Estatutu hauetan eta Toki-Jaurbidearen arauterian jarritako izapideak bete ondoren Batzar-Nagusien osaketa aldatu egingo da. Ordezkariak artikuli honetako 3. idazatian jarritako proportzotasun-irizpidei lotuko zaizkio. Batzar-Nagusien osaketa ere aldatu egingo da udalerri bateko biztanleri kopurua aldatu eta jarri den gora edo beheragoko maila baten sartzea eskatzen duenean.

11.- Partzuergoko kide bat legez ezarrita dauden izapideak bete ondoren banatzen denean, berez Partzuergoko Batzar-Nagusi eta gainontzeko Organuetatik kanpo geldituko da.

12.- Kontseilu-Nagusiko kide guztiek hitz egin eta botoa emateko eskubidea izango dute egingo diren bilkuretan. Hala ere, Partzuergoaren kidea den Erakunde batek Partzuergoaren jardueretarako finantziarioari buruzko betebeharrak nabarmenki beteko ez balitu, bere ordezkariak edo ordezkariak ez luke boto eskubiderik izango.

Ez betetzea Estatutuen arabera aurreko ekitaldia ixterakoan Partzuergoaren kidea den erakundeari dagozkion diru- kopuruak ez ordaintzean datza, boto eskubidea kenduko zaiolarik aurreko ekitaldietatik ordaintzeke dauden diru- kopuruak ordaindu arte.

29. Artikulua.- Aplikagarria den araudia eta araubidea

1. Partzuergoko Ogasuna Toki Ogasuna araupetzen duen, abenduaren 16ko, 9/2005 Foru Araua, arau honen ordezkari eta honen garapen legez egiten diren arauak mugaturik, Estatutu hauetan eta Legeen arabera ezarritako baliabideez eratuko da.

2. Zein administrazio publikori dagoen atxikirik, hari dagokion aurrekontu, kontabilitate eta kontrol-araubidearen mende egongo da Partzuergoak, hargatik eragotzi gabe, Bizkaiko Toki Erakundearen Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko, ekainaren 12ko, 5/2013 Foru Arauan, edo honen ordezkari egiten den arauan, aurreikusitakoari loturik.

3. Estatutu honetan jasotzen denari kalte egin barik, Partzuergoari adskribatuta dagoen administrazio publikoari dagozkion ondare-arauak aplikatuko zaizkio.

33. Artikulua.- Aurrekontuaren onarpena

1. Aurrekontua eta betearazteko oinarriak Batzar-Nagusiek onetsiko ditu urtero, Halakoetan, Toki- Araubideari buruzko legeriak ezartzen dituen epeetan eta baldintzetan.

2. Partzuergoaren Aurrekontua atxikirik dagoen administrazio



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

publikoaren aurrekontuaren parte izango da, eta administrazio horren kontu orokorrean sartuko da.

36. Artikulua.- Kontuak ematea

1. Kontu-Orokorra kontu emateaz Toki-erakundeak araupetzen duten arauak jartzen dutenari lotuko zaio, Estatutu hauetan jarritako berezitasunen kaltetan izan gabe. Kontseilu Nagusiari dagokio kontu- ematea onestea.

2. Halaber, Partzuergoa atxiki zaion administrazioaren kontrol-organoak, ekitaldi bakoitzaren ostean, urteko kontuen auditoretza egingo du.

38. Artikulua.- Lege-Araubidea

1. Partzuergoaren zerbitzuan dauden langileak karrera-funtzioari eta lan itunpeko kontratuzkoa izango dira, eta honen kideak diren Administrazioetan jatorria eduki ahal izango dute, jarraian jasotzen diren salbuespenekin.

2. Partzuergoak, Estatutu hauen arabera Partzuergoaren Gobernu organoaren izaera duten karguetan izan ezik, langileen kontratazioa bakarrik onartu ahal izango du, Partzuergoaren kideak diren Administrazioetatik langileak har ez daitezkeenean, bete behar diren eginbeharrak bereziak izateagatik.

3. Kontseilu Nagusiak, Batzorde Betearazleak proposaturik, Estatutu hauen arabera Partzuergoaren Gobernu organoaren izaera duten karguak ez diren langileak kontratatzeke espedientearen hasiera onartzeko eskumena dauka, beti ere, alde zuzenetik, atxikirik dagoen Administrazioaren baimena lortu eta gero. Langileen aukeratzea eta kontratazioa Batzorde Betearazlearen eskumena izango da.

4. Partzuergoko langileen jaurbidea izendapen bakoitzean zehaztuko diren baldintzei lotuta egongo da, eta bertan aurreikusita ez dagoenean, dagokien lan- araubideetan ezarritakoaren arabera, edo Toki- Administrazioaren funtzionarioen araubidean, kasuan-kasu.

5. Partzuergoaren langileen lege- araubidea atxikirik dagoen administrazio publikoaren langileena izango da, eta, ordainsariei dagokienez, inoiz ez dituzte gaindituko hango lanpostu baliokideentzat ezarritakoak.

44. Artikulua.- Jardunbidea

1. Desegite erabakia hartu osteko egunetik kontatuko den 30 egunetako epean, Kontseilu Nagusiak, likidatzaile bat izendatuko du, zeina organo edo entitate bat izango baita, partzuergoa adskribatu zaion administrazio publikoari lotua edo haren mendekoa. Batzarretara deitu ahal izango dira arlo horretako teknikari edo adituak, iritzia eman edota



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

txostenak egin edota erizpenak emateko bakarrik.

2. **Likidatzailea**, lau hilabeteko gehienezko epean Partzuergoaren ondasun, zerbitzu eta eskubideen zerrenda egin, beraren baliabide, zama, eta zorrak adierazi eta langileak zerrendatuko ditu.

3. Egindako zerrendaren arabera, **Likidatzaileak Partzuergoaren kide bakoitzari dagokion kitapen-kuota asmatuko du, kitapenaren ostean geratzen den ondare garbian dagokion partaidetzaren arabera. Honetarako, Partzuergoaren kide guztiak honen ondare-funtserako egin dituzten ekarpenen kopurua eta urtez urte emandako finantzaketa kontuan hartuko dira. Partzuergoko kideren batek ez badu ekarpenik egin, horretara beharturik ez zegoelako, hau izango da banaketa-irizpidea: partzuergoko kide izan den denboran diru-sarrerarik jaso badu, haietan izandako partaidetza.**

Proposamen hori Kontseilu Nagusiari ondasun, eskubide eta zorrak partzuerturiko Erakundeen artean banatu eta barne-sartzea proposatuko dio. Hortarako Batzordeak kitapenak egiteko egutegia jarriko du.

4. **Kitatzeko erabakiak, kitatzeko kuotaren ordainketa egingo den era eta baldintzei dagokienez, emaitza positiboa izatekotan, edota partaide bakoitzak onartu behar duen zorrari dagokionez, Kontseilu Nagusiko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharko du.**

Gehiengo berdinarekin aktibo eta pasibo guztiak sektore publikoko beste entitate juridikoki egoki bati lagatzea, jarduerari eusteko eta azkenduko den partzuergoaren xedeak betetzeko, erabaki ahal izango da. Aktibo eta pasibo guztiak lagatzeak berekin ekarriko du partzuergo lagatzailea azkentzea likidaziorik gabe.

Kitapen-proposamenak onetsia izan dadin, onetsi ondoren partzuerturiko Erakunde guztientzat betebeharrekoa izango da.”

BIGARREN.- Busturialdeko Ur Partzuergoari akordio honen berri ematea.

Laugarren.- Gizarte, kultur eta kirol esparruko jarduerak antolatzeko eta aurrera eramateko diru-laguntzei buruzko ordenantzan agirian egindako aldaketak onartzea, egokia bada.



Ikusita “Gizarte, kultur eta kirol esparruko jarduerak antolatzeko eta aurrera eramateko diru-laguntzei buruzko ordenantza” aldatu behar dela Gauegiz Arteagako Udalaren beharretara egokitu dadin.

Ikusita Informazio-batzordearen aldeko irizpena, 2018ko martxoaren 2koa.

Kontuan hartuta ordenantzak onartzeko prozedura, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarria.

Udalbatzako Osoko Bilkurak, ekitaldira joan diren kideek aho batez hala erabaki ondoren, **HITZARTZEN DU**:

LEHENA.- “Gizarte, kultur eta kirol esparruko jarduerak antolatzeko eta aurrera eramateko diru-laguntzei buruzko ordenantza” behin-behinean onartzea, honako aldaketa honekin:

4. artikulua aldatu da. Hona hemen testu berria:

"Ordenantza honek araututako diru-laguntzen onuradunak izan ahalko dira gizarte, kultura eta kirol esparruko irabazi-asmorik gabeko elkarteak, baldin eta egoitza Udalerri honetan badute, legez eratu badira eta baldintza hauek betetzen badituzte:

-Helbide soziala Gauegiz Arteagan izatea.

-Irabazi-asmorik gabe eratuta egotea.

-Eusko Jaurlaritzaren eta elkarte erregistroan eta udal honen elkarten erregistroan izena emanda egotea.

- Erakundeak indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-zorrak kitatuta izatea (Foru-ogasunarekin edo dagokionarekin) eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioekin egunean egotea.

Berriaz jasotzen da Kanala Auzoan dauden eta bertan jarduten duten Erakundeak salbuetsita daudela, horien egoitza soziala Sukarrietan egon daiteke eta, betiere, erakundearen Jarduera Gauegiz Arteagako biztanleei ere zuzenduta badaude eta pertsona horiek erakundeko kide izateko eskubidea badute.”

5. artikulua bigarren paragrafoa aldatu da. Hona hemen testu berria:

Elkarte bakoitzarentzat diruz laguntzeko gehienezko zenbatekoak ezingo du izan aurrekontu araztuaren %50 baino gehiagokoa, 1.800 euroko mugarekin."

8. artikuluan paragrafo hau ezabatu da:



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

"- Erakundeak indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-zorrak kitatuta dituela (Foru-ogasunarekin edo dagokionarekin) eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioekin egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak, administrazio eskudunek igorritakoak."

11. artikulua 2. puntua aldatu da. Hona hemen testu berria:

"Ebazpena Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera jakinaraziko da.

Ebazpena ezezkoa bada, argudioak eman beharko dira. Ebazpena baiezkoa bada, udalak idatziz azaldu behar du zein irizpidetan oinarritu diren kopurua onartzeko."

Orain arte zeuden eranskinak kendu eta honako hauek txertatu dira:

“Eranskinak/Anexos

I. Eraskina Eskaera eredu/Anexo I Modelo Solicitud

Eskatzailea (elkartea) / Solicitante (asociación)

Izena / Nombre

IFZ...

Helbidea

Domicilio

Herria / Población

PK / CP

Probintzia / Provincia

Herrialdea / País

Telefonoak

Fax-a

E-maila

Diru-laguntza jasotzeko kontua (IBAN: 24 digitu) / Cuenta para cobro de subvención (IBAN 24 dígitos)

Ordezkaría / Representante

Izen-abizenak

Nombre y apellidos

NAN...

DNI...

Helbidea

Domicilio

Herria / Población

PK / CP

Probintzia / Provincia

Herrialdea / País

Telefonoak

Fax-a

E-maila

Goian aipatzen den elkarteko ordezkariek, **BERE ARDURAPEAN, HAUXE AITORTZEN DU:**

1. Elkarte hori diru-irabazi asmo barikoa dela eta Gautegiz Arteagako udalerraren eremu barruan jarduerak egiten dituela.
2. Oinarrietan eta deialdian ezartzen diren baldintza guztiak betetzen dituela eta goitik behera onartzen dituela.
3. Gautegiz Arteagako Udala baimentzen duela telematikoki erakundearen hurrengoko ziurtagiriak lortzeko: egunean dituela indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin dituenak.
4. EZ duela inongo zorrik diru-laguntzak itzuli behar izateagatik.
5. Diru-laguntzetarako Legearen 13 artikuluan xedatutako onuradun izateko baldintzak betetzen dituela eta 14. artikulua arabera baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen duela.
6. Diru-laguntza honen xede den jarduera burutzeko:
 - Ez da eskatu eta eskuratu beste laguntzarik; eskatu den bakarra Gautegiz Arteagako udalari eskatu zaiona izan da.
 - Beste laguntza batzuk eskatu eta/edo eskuratu dira. (kopia eranstean da)

Eta, horrela jasota gera dadin eta bidezkoak diren ondorioak sor ditzan, aitortzen hau izenpetzen du.

El/la representante de la asociación de referencia **DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD:**

1. Que dicha asociación es una asociación sin fines de lucro que desarrolla actividades socio-culturales o deportivas en el ámbito del municipio de Gautegiz Arteaga.
2. Que acepta y reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y en las bases.
3. Que autoriza al Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga a consultar telemáticamente los certificados de que la asociación se encuentra al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seg. Social impuestas por las disposiciones vigentes.
4. Que NO tiene pendiente el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.
5. Que cumple los requisitos señalados en el art. 13 de la Ley General de Subvenciones para obtener la condición de beneficiario y que se compromete a cumplir las condiciones con arreglo al art. 14 de dicha ley.
6. Que para ejecutar la actividad objeto de la subvención:
 - NO se han solicitado ni obtenido otras ayudas que la correspondiente a la solicitada al Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga.
 - SI se han solicitado y/o obtenido otras ayudas. (Se adjunta copia)

Y, para que conste y surta los efectos oportunos, firma la presente declaración responsable.

Ordez kariaren sinadura, dagokionean elkartearen zigilua, lekua eta data
/ Firma representante, en su caso, sello de la asociación, lugar y fecha

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Eranskin I beteta eta sinatuta.
- Jarduera-proiektua edo memoria diru-laguntzaren xede dena eta zehaztasunez azaltzen duena edukia, helburua, egutegia, sarrera eta gastuen aurrekontua eta diru-laguntzaren zenbatekoa osoa.
- Beste erakunde edo instituzio batzuetan jarduera berbererako diru-laguntza eskaera egin bada eta/edo diru-laguntzarik jaso bada, ebazpenaren kopia edo, hala bada, dagokio, eskabidearen kopia.
- Bakarrik Udal honetako Erakundearen Erregistroan aurkeztutako dokumentuek aldatu balira:
 - Eskaera egiten duen elkartearen identifikazioa eta helbide soziala, aldatu baldin bada.
 - Elkartearen pertsonalitate juridikoaren egiaztapena (estatutuen fotokopia konpultsatua, eta elkartea Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarteen erregistroan, Elkarteen Erregistroan edo antzekoetan inskribatuta dagoela dioen egiaztagiri), aldatu egin baldin bada.
 - Elkartearen ordezkariaren egiaztagiria eta ordezkariaren NANaren fotokopia, aldatu baldin bada.
 - Banku-kontuaren identifikazioa diru-laguntza ordaintzeko, aldatu baldin bada.
 - Aldatu diren beste dokumentu batzuk.

DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

- Anexo I cumplimentado y firmado.
- Proyecto o memoria de la actividad para la que solicita la subvención que contenga una exposición detallada de su contenido, finalidad, calendario, presupuesto de ingresos y gastos previstos para su desarrollo y cantidad total que se pide sea subvencionada.
- En caso de haber solicitado y/u obtenido otras subvenciones para la actividad objeto de subvención, copia de la resolución o, en su caso, de la solicitud.
- Solo en el caso de que los documentos obrantes en el Registro de Asociaciones de este Ayuntamiento hayan sufrido variación:
 - La documentación Identificación y domicilio social de la entidad solicitante, si ha sufrido variación.
 - Documentación acreditativa de la personalidad jurídica de la entidad solicitante (Copia compulsada del certificado de inscripción en el Registro de Entidades Deportivas, Registro de Asociaciones o similares del Gobierno Vasco y de los Estatutos de la Entidad), si ha sufrido variación.
 - Documentación acreditativa de la capacidad del representante de la entidad solicitante y copia de su D.N.I., si ha sufrido variación.
 - Identificación de los datos bancarios para hacer efectiva la subvención, si ha sufrido variación.
 - Otros documentos que hayan sufrido variación.

Zure datu-pertsonalak Gauegiz Arteagako Udalaren informazio sistemaren fitxeroetan sartuko dira, helburua udal kudeaketaren zereginak burutzea izango da, 15/1999 Lege Organikoak xedatzen dituen eskubideak erabili ahal dituzu Herritarrek Artatzeko Zerbitzuan (BAZ)

Sus datos personales serán incluidos en un fichero del sistema de información del Ayuntamiento de Gauegiz Arteaga, cuya finalidad es la realización de tareas propias de la gestión municipal. Ud puede ejercer los derechos que reconoce la Ley Orgánica 15/1999 a través del Servicio de Atención Ciudadana (BAZ)

II. Eranskina Diru-laguntzaren zuritzea/ Anexo II Justificación subvención

Eskatzailea (elkartea) / Solicitante (asociación)

Izena / Nombre					
IFZ... NIF...		Helbidea Domicilio			
Herria / Población		PK / CP		Probintzia / Provincia	
Herrialdea / País		Telefonoak			
Fax-a		E-maila			

Diru-laguntza jasotzeko kontua (IBAN: 24 digitu) / Cuenta para cobro de subvención (IBAN 24 dígitos)

--	--	--	--	--	--

Ordezkaria / Representante

Izen-abizenak Nombre y apellidos					
NAN... DNI...		Helbidea Domicilio			
Herria / Población		PK / CP		Probintzia / Provincia	
Herrialdea / País		Telefonoak			
Fax-a		E-maila			

Diru-laguntza / Subvención

Diruz lagundutako aktibitatea Actividad subvencionada	
--	--

Goian aipatzen den elkarteko ordezkariak, **BERE ARDURAPEAN, HAUXE AITORTZEN DU:**

1. Egunean dituela indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin dituenak eta EZ duela inongo zorrik diru-laguntzak itzuli behar izateagatik.
2. Ondoren azalduko direnak jada ordainduta dauden diruz lagundutako jardueratik sortutako gastuei dagozkienak eta diru-sarrerei dagozkienak direla.
3. Ez dagoela gain finantzaketarik diru-laguntzaren xede diren inolako ekintzetan.
4. Diru-laguntza honen xede den jarduera burutzeko:
 Ez da eskatu eta eskuratu beste laguntzarik; eska-tu den bakarra Gautegiz Arteagako udalari eskatu zaiona izan da.
 Beste laguntza batzuk eskatu eta/edo eskuratu dira. (kopia eranstean da)

Eta, horrela jasota gera dadin eta bidezkoak diren ondorioak sor ditzan, aitortzen hau izenpetzen du.

El/la representante de la asociación de referencia **DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD:**

1. Que se encuentra al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seg. Social impuestas por las disposiciones vigentes y que **NO** tiene pendiente el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.
2. Que los datos que a continuación se indican corresponden a gastos derivados de la actividad subvencionada que están ya abonados y a los ingresos.
3. Que no hay sobrefinanciación con relación a ninguna de las actividades subvencionadas.
4. Que para ejecutar la actividad objeto de la subvención:
 NO se han solicitado ni obtenido otras ayudas que la correspondiente a la solicitada al Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga.
 Si se han solicitado y/o obtenido otras ayudas. (Se adjunta copia)

Y, para que conste y surta los efectos oportunos, firma la presente declaración responsable.

--

Ordezkariaren sinadura, dagokionean elkartearen zigilua, lekua eta data / Firma representante, en su caso, sello de la asociación, lugar y fecha
--

GASTUEN ZERRENDA / RELACIÓN DE GASTOS *

HORNITZAILEA / ACREEDOR		IFK / CIF	GASTUAREN KONTZEPTUA CONCEPTO GASTO	ZENBATEKOA IMPORTE	ORDAINKETAREN MODUA (Eskuz, transferentzia bidez...) MODO DEL PAGO (En mano, mediante transferencia...)	ORDAINKETAREN EGUNA FECHA DEL PAGO
Zb Nº	IZENA / NOMBRE					
1						
2						
3						
4						
5						
6						
7						
8						
9						
10						
11						
12						
13						
14						
15						
16						
17						
18						
19						
20						
21						
22						
23						
24						
25						
GASTUEN ZENBATEKOA / TOTAL GASTOS						

* Jatorrizko fakturak edo fakturen kopia kompulsatuak atxiki eta zutabe batean agertzen diren zenbakien arabera ordenatu / Adjuntar las facturas originales o copias de las facturas compulsadas y ordenarlas de acuerdo con la numeración de la columna 1.

DIRU-SARREREN ZERRENDA / RELACIÓN DE INGRESOS

	KONTZEPTUA (kuotak, beste diru-laguntzak...) / CONCEPTO (cuotas, otras subvenciones...)	ZENBATEKO A / IMPORTE
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
11		
12		
13		
14		
15		
16		
17		
18		
19		
20		
DIRU-SARREREN ZENBATEKOA / TOTAL INGRESOS		

* Beste Administrazio Publikoek emandako diru-laguntzen ebazpenen kopia atxiki, hala badagokio / Adjuntar la copia de la resolución de las subvenciones recibidas de otras Administraciones, en su caso.

.....(e)ko,k / En a de

IDAZKARIAREN SINADURA, DAGOKIONEAN, ELKARTEAREN ZIGILUA / FIRMA DEL SECRETARIO/A Y EN SU CASO, SELLO DE LA ENTIDAD	
---	--



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Eranskin II beteta eta sinatuta, eta hurrengoak gehituko zaizkio:
- Idazkariak igorritako ziurtagiria, non diru laguntzaren arabera egindako ekintzen sarrerak eta gastuak, zehatz-mehatz, zehazten diren.
 - Diru-laguntzaren xede den jarduerak garatzean izandako gastuak justifikatzeko faktura orijinal edo kopia konpultsatuak. Gastuak faktura elektronikoen bidez ere justifikatu ahal izango dira, zergei dagokionez onartuak izateko baldintzak betetzen dituzten bitartean.
 - Eskatera egiterakoan aurkeztu ezin izan bada, bestelako erakundeek jarduera berentzeko emandako diru-laguntzen ebazpena edota diru-laguntzen eskaera egin denaren adierazpena.
- Diru-laguntzaren arabera urtean egindako ekintzen memoria eta, hala badagokio, eskuko programen aleak, kartelak, argazkiak, argitarapenak edo beste agiri grafikoak diru-laguntzaren arabera egindako ekintzen ingurukoak, aleetan agertu behar dira Gauteviz Arteagako Udalak diru-laguntzaz burutu direla eta Udalak zehaztutako logotipoak.

DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

- Anexo II cumplimentado y firmado en el que se incluirá:
- Certificado expedido por el Secretario referente a los ingresos y gastos, ambos desglosados, habidos en relación a las actividades subvencionadas.
 - Acreditación de los gastos incurridos en el desarrollo de la actividad subvencionada mediante las facturas originales o fotocopias compulsadas. La acreditación de los gastos también podrá efectuarse mediante facturas electrónicas, siempre que cumplan los requisitos exigidos para su aceptación en el ámbito tributario.
 - Si no pudieron aportarse en el momento de la solicitud de la subvención fotocopias de los acuerdos de concesión de ayudas económicas por otras Instituciones o declaración de las subvenciones y ayudas que se han solicitado una vez presentada la solicitud de subvención en el ayuntamiento de Gauteviz Arteaga.
- Memoria relativa a las actividades desarrolladas durante el año objeto de subvención y, en su caso, ejemplares de programas de mano, carteles, fotografías, publicaciones u otra documentación de carácter gráfico elaborado en o para el desarrollo de la actividad subvencionada, debiendo constar en los ejemplares que la actividad ha sido subvencionada por el Ayuntamiento de Gauteviz Arteaga, además de los logotipos que el Ayuntamiento haya indicado.

Zure datu-pertsonalak Gauteviz Arteagako Udalaren informazio sistemaren fitxeroetan sartuko dira, helburua udal kudeaketaren zereginak burutzea izango da, 15/1999 Lege Organikoak xedatzen dituen eskubideak erabili ahal dituzu Herritarrak Artatzeko Zerbitzuan (BAZ)

Sus datos personales serán incluidos en un fichero del sistema de información del Ayuntamiento de Gauteviz Arteaga, cuya finalidad es la realización de tareas propias de la gestión municipal. Ud puede ejercer los derechos que reconoce la Ley Orgánica 15/1999 a través del Servicio de Atención Ciudadana (BAZ)”

BIGARREN.- Behin-behineko onarpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez.

Bosgarren.- Gauegiz Arteagako udal eraikinetarako garbiketa-zerbitzua emateko kontratua urtebetez luzatzea onartzea, egokia bada.

Ikusita Garbialdi, S.A. enpresak 2018ko otsailaren 20an aurkeztutako eskaera “udal eraikinetarako garbiketa-zerbitzua” kontratua urtebetez luzatzeko (sarrera-erregistroa: 376).

Kontuan hartuta “udal eraikinetarako garbiketa-zerbitzua” kontratatzeneko Klausula Administratibo Partikularren Agiriko 5. puntua, “kontratua gauzatzeko epea”, zeinetan 2 urteko indarraldia ezartzen den espediente honen kontraturako, bi aldiz luzatzeko aukerarekin (luzapen bakoitza urtebetekoa). Ez dira isilbidezko luzapenik onartuko. Kontratuaren urtekoaren azken hilean adostu beharko da luzapena. Hala ere, kontratuaren muga-egunean luzapena adostu ez bada eta interes publikoko arrazoiengatik kontratua luzatzea komeni bada, derrigorrez luzatu beharko da, ordura arteko baldintza berdinetan, adjudikazio berria egin arte. Adjudikazioa ahal bezain laster egingo da.

Ikusita Informazio-batzordearen aldeko irizpena, 2018ko martxoaren 2koa.

Udalbatzako Osoko Bilkurak, ekitaldira joan diren kideek aho batez hala erabaki ondoren, **HITZARTZEN DU:**

LEHENA.- “Udal eraikinetarako garbiketa-zerbitzua” kontratua urtebetez luzatzea onartzea, Garbialdi, S.A. enpresaren alde.

BIGARREN.- Alderdi interesdunari horren berri ematea, jakinarazpen hau jaso eta hilabeteko epean Gauegiz Arteagako Osoko Bilkurari bide administratiboari amaiera ematen dion Ebazpen honen aurka aukerako berrezartze-errekurtsioa helaraz diezaiokeela jakinaraziz; edota, jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu, administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegietan.



Seigarren.- Egokia bada, alkatea ahalduntzea Gauegiz Arteagan animaliak izatearekin eta horiek babestearekin zerikusia duten arau-hauste larriak zigortzeko.

Ikusita Animalien Babesari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 32. artikulua, zeinen arabera Udaleko osoko bilkurari dagokion arau-hauste larrien gaineko zigorrak ezartzea.

Ikusita Gauegiz Arteagan animaliak izateari eta horiek babesteari buruzko Udal ordenantzaren 31. artikulua alkatearen/presidentearen eskuetan uzten duela arau-hauste larrien gaineko zigorrak ezartzeko eskumena.

Ikusita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.4 artikuluan ezarritakoaren arabera Osoko Bilkurak alkateari eta Tokiko Gobernu Batzarrari laga diezazkiola artikulua horretan adierazitako zenbait eskumen.

Ikusita arazoak egon daitezkeela arau juridikoak interpretatzerako orduan.

Ikusita Informazio-batzordearen aldeko irizpena, 2018ko martxoaren 2koa.

Kontuan hartuta Toki Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 51. artikulua.

Batzorde honek, ekitaldira joan diren kideek aho batez hala erabaki ondoren,
IRIZPEN HAU EMATEN DU:

Lehen.- Animaliak izatearekin eta horiek babestearekin zerikusia duten arau-hauste larrien gaineko zigorrak ezartzeko eskumena Alkateari lagatzea.

Bigarren.- Ebazpen hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzea, Toki Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 51. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

Zazpigarren.- 2017. urteko aurrekontuaren likidazioa.

Alkatearen izenean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 49.3 artikuluan ezarritakoa betetz, osoko bilkuran aurkezten da 2017. urteko aurrekontuaren likidazioari buruzko txostena, eskaneatuta eta elektronikoki bidalita. Txosten horretan egiazta daiteke egokitutako



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

aurrekontua 149.216,45 eurokoa dela, eta 407.571,89 euroko diruzaintzako geldikina dagoela gastu orokorretarako.

Zortzigarren.- Alkatetza Dekretuen kontu ematea.

11/2018 Dekretua.- Gobernu-batzarraren deialdia 2018ko urtarrilaren 25erako.

12/2018 Dekretua.- O201802 ordainketa-agindua, gastu orokorrak.

13/2018 Dekretua.- Julian Maria Uriarte Lamiquiz jaunari eskumena emateko Ainoa Eiguren Aramburu andrearen eta Josune Mallabiabarrena Acerecho andrearen arteko ezkontza baimen dezan.

14/2018 Dekretua.- Ainoa Eiguren Aramburu andreari eta Josune Mallabiabarrena Acerecho andreari elkarrekin ezkontzeko baimena emateko.

15/2018 Dekretua.- M.P.P. jauna ofizioz Udal honetako Biztanleen udal-erroldatik kentzeko.

16/2018 Dekretua.- O201803 ordainketa-agindua, soldatak.

17/2018 Dekretua.- C gasolioaren hornidura kontratatzeko Esparru-akordiotik eratorritako kontratua REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLIFEROS, S.A. enpresari esleitzeko, 2018 eta 2019 urteetarako.

18/2018 Dekretua.- J.V.M. eta F.H.A.M.ri Kanala 21 helbideko lanen proiektuaren kopia eskuratzeko baimena emateko.

19/2018 Dekretua.- Energia elektrikoaren hornidura kontratatzeko Esparru-akordiotik eratorritako kontratua IBERDROLA CLIENTES, S.A.U. enpresari esleitzeko, 2018-2019 urteetarako.

20/2018 Dekretua.- O201804 ordainketa-agindua, gastu orokorrak.

21/2018 Dekretua.- Informazio Batzordearen deialdia 2018ko otsailaren 16rako.

22/2018 Dekretua.- Gobernu-batzarraren deialdia 2018ko otsailaren 16rako.

23/2018 Dekretua.- 2016-2017 ikasturterako kirol arloko, euskara ikasteko, musika eskoletarako eta haurreskolarako diru-laguntzen deialdiaren behin betiko ebazpena.

24/2018 Dekretua.- O201805 ordainketa-agindua, familientzako diru-laguntzak.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

25/2018 Dekretua.- 1/2018 prozedura zehatzailearen hasiera, Gauegiz Arteagan animaliak izateari eta horiek babesteari buruzko udal ordenantza ez betetzeagatik.

26/2018 Dekretua.- 2/2018 prozedura zehatzailearen hasiera, Gauegiz Arteagan animaliak izateari eta horiek babesteari buruzko udal ordenantza ez betetzeagatik.

27/2018 Dekretua.- Kanalako Jaien Elkarteari, hau da, Memenkoko Kultur Elkarteari, diru-laguntza zuzenak emateko deialdiaren behin betiko ebazpena.

28/2018 Dekretua.- O201806 ordainketa-agindua, Kanalako Jaien Elkarteari diru-laguntzak emateko (2. zatia).

29/2018 Dekretua.- Gauegiz Arteagako gizarte, kultura eta kirol esparruko irabazi-asmorik gabeko elkarteei zuzendutako 2017ko diru-laguntzen deialdiaren gaineko behin betiko ebazpena.

30/2018 Dekretua.- O201807 ordainketa-agindua, erakundeentzako diru-laguntzak (2. zatia).

31/2018 Dekretua.- Informazio Batzordearen deialdia 2018ko martxoaren 2rako.

32/2018 Dekretua.- O201808 ordainketa-agindua, soldatak.

33/2018 Dekretua.- Erakunde honen 2017ko Aurrekontu Orokorraren Likidazioa.

34/2018 Dekretua.- Aurreko Aurrekontuaren Kreditu-geldikinak indarrean dagoen Udal aurrekontuko Gastuen egoera-orrian txertatzea, 1/2018 espedientea.

35/2018 Dekretua.- O201809 gastu orokorrak, soldatak.

36/2018 Dekretua.- Gobernu-batzarraren deialdia 2018ko martxoaren 2rako.

37/2018 Dekretua.- E.A.E.A. andreari baimena ematea María Purificación Aberasturi Errazkin andrearen hilobian hilarria jartzeko.

38/2018 Dekretua.- Gauegiz Arteagako Udalaren Erakunde Erregistroan GARTIAPE KIROL KLUBA inskribatzea

39/2018 Dekretua.- Zelaieta 53 helbidean betearazteko aginduaren espedientea irekitzeko.

40/2018 Dekretua.- Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Zergaren 2018ko udal-eroldaren onespina.

41/2018 Dekretua.- E.I.M.-ri (NAN: 72241614-V) baimena ematea 2018. urtean zehar Erabilera Publikoko Atxarrea mendian egurra mozteko, hura etxean erabiltzeko.

42/2018 Dekretua.- Osoko Bilkuraren ezohiko saiorako deialdia 2018ko martxoaren 16rako.



Ulertu dute.

Bederatzigarren.- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioen jakinarazpena.

112/2017.- Sailkapena IBERDROLA CLIENTES, S.A.U.-ren alde, energia elektrikoaren hornidura kontratatzeko Esparru-akordioan, 2018-2019 urteetarako.

113/2017.- Sailkapena REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLIFEROS, S.A.-ren alde, C gasolioaren hornidura kontratatzeko Esparru-akordioan, 2018 eta 2019 urteetarako.

114/2017.- “Pick up berriaren aseguru” zerbitzuaren kontratu txikiaren esleipena Humberto Zuazua Agencia de Seguros, S.L. (AXA) enpresari (IFK: B95353470), zenbatekoa 332,86 euro izanik (BEZ barne)

115/2017.- “Montorre Eskola eta Udaletxea gasolioaz hornitzeko” kontratu txikia Premira Energia Norte, S.L. enpresari esleitzea (IFK: B95840542), zenbatekoa litroko 0,521 euro izanik (BEZ barne).

116/2017.- J.A.G.C. jaunari lizentzia ematea bide publikoa okupatzen duen aldamio bat jartzeko, konpontzen ari den Portu-Bengoetxea baserrian, Portu 6 helbidean dagoena.

117/2017.- Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskudunari txosten juridiko-teknikoa eskatzea, espediente osoa elektronikoki bidalita, J.C.A.O. jaunak Isla Bekoako lursaileko familia bakarreko etxebizitzetara lotuta eskatu dituen banatze-lizentzia eta lanak egiteko lizentzia ematerako orduan sortutako arazo guztiak konpontze aldera.

118/2017.- Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskudunari txosten juridiko-teknikoa eskatzea, espediente osoa elektronikoki bidalita, J.I.C. jaunak Portu Errota zaharberritzeko eskatu duen lizentzia ematerako orduan sortutako arazo guztiak konpontze aldera.

1/2018.- “2018ko egutegiak inprimatzeko” zerbitzua zabaltzeko kontratu txikia Ibegrafik, S.L. enpresari esleitzea (IFK: B95640884), 2018ko 50 egutegi barne hartzen dituen proposamenagatik, zenbatekoa 338,80 euro izanik (BEZ barne).



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

2/2018.- “Erregistro zibilean dagoen leihoa egin eta jartzeko” kontratu txikia ANDERE UGARTE OLANO andreari esleitzea (SAGARTE CARPINTERÍA METÁLICA; NAN: 30635957-A), zenbatekoa 916,66 euro izanik (BEZ barne).

3/2018.- “Muniategi auzoan zutabe galbanizatu batekin eta led luminariarekin argia jartzea” kontratu txikia Argi-Ola enpresari esleitzea (IFK: B48485098), zenbatekoa 1.368,04 euro izanik (BEZ barne).

4/2018.- “Montorre Eskolako igogailuaren konponketa” zerbitzuaren kontratu txikia ORONA S. COOP. enpresari esleitzea (IFK: F20025318), zenbatekoa 747,85 euro izanik (BEZ barne).

5/2018.- Egun dauden diru-laguntzen deialdien azterketa.

6/2018.- 2018. urterako, laneko aholkularitza zerbitzuen kontratu txikia GESTORIA GABIOLA, S.L. enpresari esleitzea (IFK: B95006904) urtebeterako (ezingo da luzatu).

7/2018.- Sailkapena SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A., S.M.E. erakundearen alde (IFK: A-83052407, 2018-2019 eperako posta-zerbitzuaren Esparru-akordioari lotuta.

8/2018.- “Espedienteentzako karpeten erosketa” kontratu txikia GRÁFICAS GAUBECA enpresari esleitzea (IFK: B95296851), 1.000 ale barne hartzen dituen proposamenagatik, zenbatekoa 293,79 euro izanik (BEZ barne).

9/2018.- “Desfibriladorearen urteko azterketa” kontratu txikia OSATU S. COOP. enpresari esleitzea (IFK: F48113161), helduentzako eta haurrentzako desfibriladore basikoaren azterketa barne hartzen duen proposamenagatik, zenbatekoa 244,29 euro izanik (BEZ barne).

10/2018.- Prebentzioz eskuzko su-itxalgailuak, ondasunak, suteak hautemateko sistemak eta Rf ate sistema (22443 zenbakidun suteen zentralera konektatuak) mantentzeko kontratu txikia SERCOIN SISTEMAS DE SEGURIDAD, S.A.U. enpresari esleitzea (IFK: A48178024), 2018/12/31ra arte (ezingo da luzatu).

11/2018.- A.R.C.G. jaunari lizentzia ematea bide publikoa okupatzen duen aldamio bat jartzeko, Gautegiz Arteagako Zelaieta 67 helbidean dagoen baserrian.

12/2018.- Auzoak, baserriak eta intereseko tokiak seinaleztatzeko kontratu txikia SEÑALIZACIÓN LACROIX, S.A. enpresari esleitzea (IFK: A12329827), zenbatekoa 4.801,98 eurokoa izanik (BEZ barne), gehienez ere 6 hilabetetan gauzatzeko.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

13/2018.- 2018 eta 2019 urteetarako posta-zerbitzuen Esparru-akordioa SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A., S.M.E. UNIPERSONAL enpresari esleitzea (IFK: A-83052407).

14/2018.- Gauegiz Arteagako jaietarako Gorka eta Natxo Knörren kontzertuaren kontratu txikia GAZTEOK MANAGEMENT KULTUR LANAK, S.L.I. enpresari esleitzea (IFK: B95103636), zenbatekoa 4.800 € izanik (BEZ gabe).

15/2018.- A.U. andreari (NAN: 78861121-D) eta J.N. jaunari (NAN: 78860348-H) lizentzia ematea Gauegiz Arteagako (Bizkaia) Ikusalai 4 helbidean dagoen etxebizitza lehen aldiz okupatzeko.

16/2018.- Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantzen Sailak Udalarri hobekuntzak egiteko emandako funtsarekin gauzatuko diren ekintzak zehazteko.

17/2018.- “Irisgarritasuna hobetzeko kontsultategi medikoan jarritako sarbide berrien” lanetan segurtasuna eta osasuna koordinatzeko kontratu txikia ASEM VISION COMPETITIVA, S.L. enpresari esleitzea (IFK: B61122305).

18/2018.- Skate pistarako zolata egokitzeko lanetan segurtasuna eta osasuna koordinatzeko kontratu txikia ASEM VISION COMPETITIVA, S.L. enpresari esleitzea (IFK: B61122305).

19/2018.- Haurrentzako jolasak konpontzeko elementu batzuen hornikuntzarako kontratu txikia URBABIL 2000 S.L. (IFK: B95110342) erakundeari esleitzea, zenbatekoa 165,65 euro izanik (BEZ barne).

20/2018.- Hiru ispiluren hornikuntzarako kontratu txikia ADO URBAN FURNITURE S.L. (IFK: B65916223) erakundeari esleitzea, zenbatekoa 209,33 euro izanik (BEZ barne).

21/2018.- Egun dauden diru-laguntzen deialdien azterketa.

22/2018.- Hitza egunkariaren publizitate zerbitzua emateko kontratu txikia LEA ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO HITZA erakundeari esleitzea, 2018ko otsailaren 2an aurkeztutako eskaintza ontzat hartuta (sarrera-erregistroa: 264), 875 euroko publizitate paketeagatik (BEZ gabe).

Ulertu dute.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

Hamargarren.- Galderak eta eskaerak

- Aitziber Ribasek eskolako jantokien proiektuari buruz galdetu dio alkateari. Juan Felix Naberan Ozamizek erantzun du eskolako jantokien proiektua Urremendi Landa Garapen Elkartearekin batera gauzatzeko proiektua dela, eskoletako jantokietan ikasleek tokiko produktuak jateko helburuarekin. Proiektu pilotua da eta printzipioz Udala ekimenaren alde dago. Osoko Bilkurako parte-hartzaileek adierazi dute egun eskolako sukaldea ez dagoela prest janaria prestatzeko, eta horrexegatik ekartzen dela Gasca enpresak prestatutako janaria kanpotik. Horrez gain, azaldu dute horniketa arazoak egon litezkeela, tokiko produktu batzuetan eskaintza nahikoa ez egoteagatik. Bukatzeko, alkateak bere adostasuna azaldu du proiektura atxikitzeko, nahiz eta organo bultzatzaileak formalki galdetu ez duen.

*******AKTAREN ITXIERA**

Lantzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak bertan izan diren guztiei eskerrak eman eta saioa amaitutzat jotzen du, goian aipatutako eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu izanik. Ondoren akta hau idazten da, ospatuko den hurrengo saioan onartu beharko dena, eta guztia Udalbatzako Idazkari gisa ONTZAT EMATEN DUT.

O°E°

ALKATEA,

Sinatua: Juan Felix Naberan Ozamiz
Aranguren

IDAZKARIA,

Sinatua: Amaia Abanzabalegui